



ASOCIACION DE FAMILIAS DE OTXARKOAGA OTXARKOAGAKO FAMILIA ELKARTEA

Avda. Pau Casals 19 - 48004 Bilbao - Telf.: 94 412 03 87

IMAJINATU OTXARKOAGA

Auzoaren **IKERKETA SOZIOLOGIKOA** nahi genuen, eta horren ordez Udalak **IMAJINATU OTXARKOAGA** deritzon Proiektua ekarri digu.

Soluzio objetiboetara heltzen den **analisi soziologiko profesionala** egin beharrean, 2007. urtean, orain dela 2 urte auzokideen eritziak jasotzeko hasitako elkarriketa prozesu batean sartu gaituzte. **Guzti hori bazeukatela eta idatziz! Zergaitik, orduan, ez dituzte erantzuten aukokideen eguneroko eskariak?**

Estraineko orea egin dute auzokoen eritziak, politikoenak eta Otxarkoagan dagoeneko bizi ez direnenak nahastuz.

IMAJINATU OTXARKOAGAn Giza Psikologia erabiltzen da, ez da **Lan Soziologikoa**.

Denok ezagutzen dugu gaur egun **Psikologiaren bidez** nola gauzaten den **gizartearen kontrola**. Historikoki **Erljioa eta Elizak** eragiten zuten kontrola.

Gizartearen kontrolarako teknika berri hauek gizartean dauden gatazkak eta kritikak baretzea dute helburu.

IMAJINATU OTXARKOAGArekin 2 urtez okupatuta eduki gaituzte, **azkenik hasiera puntura heltzeko. HORNIDURA eta INBERTSIO**etan ez dago ezer berririk. Benetazko **hobekunza soziala eta bizitzaren kalitaterako** behar ditugunak.

Batez ere **POLIKIROLDEGIA**ren eskaria, ez dutena kontutan hartzen.

Baita **lapurtu nahi digute ELIZA NAGUSIA**. Auzotik kanpoko ekipamendua egin nahi dute, Otxarkoagakoak ez diren antzerkiko profesionalentzako. **Musika, zinea eta antzerkia egiteko behar dugun espazio garrantzitsua** galtzen dugu.

ELKARTEEN AZKOKA 2009/12/19

Udalak **Elkarte Mugimendua antolatzen du mantsotu eta dominatzeko**. Horixe bera egiten da **gaur bezalako Feriak** antolatzen direnean.

Udalak **bere eritzi bereko elkarteak**, akritikoak edota beren buruak txalotzen dituztenak bultzatzen ditu. Horretarako ez dauka dirua emateko arazorik. **Ohizko kolaboratzaileentzat badago dirua**, bai.

Ez dira falta ere, Otxarkoagan diru publikoarekin aspaldi honetan hainbestetan ikusi izan diren luntxak.

Hobeto dirua auzoko ekipamenduetarako gordeko balute !

BIZITEGI

Bizitegiri emandako **ezetza** denuntziatu nahi dugu.

Udalak **ez dio parte hartzen utzi Bizitegiri**. Honek hatos kritikoak ez dituztela nahi baieztatzea baino ez du egiten. Euren **kritika ozenki aldarrikatzen dutenak apartatuak** dira. Ez dute ezer aldatu.

Arroputz eta baztertzaila duten joera, **Bilbo gozoaren proiektua onartzen ez duten Bilbotarrak apartatzen dituztela eta alfombraren azpian zikinkeria izkutatzen dutela denuntziatzen dugu.**

EZ UTZI ENGAINATZEN!!!!

ZUREN ETA AUZOAREN ESKUBIDEEN ALDE ANTOLATU ZAITEZ!!!!

OTXARKOAGA BADOA !!!